



MUSIKA. Betagarri, P.I.L.T, Selektah Kolektiboa, Zea Mays, Leihotikan eta beste hainbat taldek kantatu dituzte

'AEKantuz', doinuak berritzen

AEK-k hainbat doinu zahar aukeratu eta hamar taldek eginiko bertsioak bildu ditu diskoan

Amagoia Mujika | DONOSTIA

Zaharrak eta horren zaharrak ez diren kantuen bertsioak bildu ditu AEK-k *AEKantuz* diskoan. *Ikusi mendizaleak*, *Baga biga higa* edo Errobiren *Kanpo* disko berean elkartu dituzte —egin duten nahasketa bariatua da—, egungo hainbat talderen erritmoetara moldatuak denak. Ez da horrenbeste denbora batzuk kantatzen zirela, baina gero eta gutxiago entzuten direlako aukeratu dituzte kantuok. Matxitxako langileek egin dute kantuen aukera.

AEKtik igarotako taldeak eta beste hainbatek hartu dute parte proiektuan, hasierako taldeen zerrendan batzuk erori diren arren —Durangorako euren diskoa egiten ari zirelako—, asko dira borondatez lan horretarako prestatu diren musikariak.

Hamar talde, hamar kantu

Hamar taldek parte hartu dute diskoan. Koma taldeak *Baga, biga, higa* ezaguna moldatu du, Zirikatuk, berriz, *Eperrak*; Leihotikan-ek *Ikusi mendizaleak* bertsionatu du, eta Selektah Kolektiboa, *Beotibar*. Azken kantu horretan, Benito Lertxundi-
ren ukituek eta taldearen doinuek bat egin dute.



PI.L.T taldeak *Ezpatadantza*-ren bertsio bat egin du *AEKantuz*-en.

PI.L.T-k doinueta atzerago egin du, ohiko *Ezpatadantza*-ren erritmoen gainean bertsioa eginez; Parasmak, berriz, *Kanpo* Errobiren rock doinuak har-

tu ditu, Iparraldeko taldeak nagusi atzerritarraren kontra heldazten duen mezua bere erara zabalduz; Trikioki *Itsasoan urak handi* kantu mantsoa hau-

tatu du bertsio azkarragoa emateko; Ken 7-k, berriz, Xabier Leteren eta Antton Valverderen *Izarren hautsa* moldatu du; Zea Maysek Mikel Laboaren *Gogo eta gorputzaren zilbor hestea* kantuan oinarriturik egin ditu erritmo berriak; eta, azkenik, Betagarri taldeak Xabier Letek euskaraz eta Lluís Llachek katalanez kantatu izan duten *Agure Zaharra*.

Erasoei musikaren bidez erantzuten

Euskal Herrian kantatzeko ohi-turari heldu eta euskal kulturari ekarpena egiteko xedea du lanak, ahazteko bidean diren kantu batzuk egungo erritmotara ekarri berreskuratzeko. Baina hori ez da helburu bakarra. AEK jasaten ari den eraso-
en aurrean erantzun bat eman behar zela eta, duela hilabete batzuk Irrintzi euskaltegiaren inguruan lanean diharduen talde bati otu zitzaizen diskoa egitea, erasoak arindu eta, bide batez, ekonomikoki suntsitu nahi duten erakundeari laguntza emateko bide gisara. Gorrek kaleratu du lan berria. Durangoko Azokan erosteko aukera izango da, eta azoka amaitzerakoan AEK-ko hainbat euskaltegitan eta dendatan erosi ahal izango da.

Jon Etxeandiak kartzelan idatzitako poemak kaleratu dituzte AABek

A.M | DONOSTIA

Jon Etxeandia Zorroza aurten utzi dute aske he-
mezortzi urte Espainiako kartzelatan egin ondoren, eta urte haietan bizitako pasadizoetako batzuk bildu ditu *Kartzelako lanak* liburuan. Aldi hori «gau ilun bat, amaiezina» izan dela adierazten du argitalpeneko sarreran, eta bizi-
pen horietako batzuk poemetan bilakaturik datoz hurrengo orrialdeetan; kartzelan gertatutakoak eta han egindako beste hainbat idatzi datoz ondoren. Ziegaren atzean askatasuna urrun sentitzea zer den islatzen du, eta baita presoek jasaten dituzten erasoak ere.

Idatzien alboan hainbat marrazki daude Juan Antonio Olagorta Aranek egindakoak. Hori ere aurten askatu dute, 21 urte preso eduki ostean. Kontra azalean, berriz, Antton Lopez Ruiz *Kubati*-ren idatzia dago elkartasunari buruz.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek argitaratu dute liburua, eta liburua-
ren irabaziak jardun horretarako izango dira.

Hil ala bizi?

*Bizi, noski!
Eta abentura askorekin!*

Galtzerdi suizida
Mariasun Landa
Antton Olariaga

ELKARLANEAN

EUSKAL JOLASEN BILDUMA
(CD-ROM, CD-AUDIO)

- * 50 jolasen fitxa teknikoak (nola jolatu, aldaerak, heziketa gaitasunak...)
- * 28 abesti
- * Tortoloxen jolas interaktiboa
- * Irakasle, guraso, hezitzaile eta haurrei zuzendua

Tel.: 943 27 00 33
jolasak@urtxintxa.org

ELEIZ MUSEOA. BIZKAIA
Museo Diocesano de Arte Sacro

Euskal Herria
Museoa

ARRANTZALEEN MUSEOA
ERTZILLA DORREA

Museo del Nacionalismo Vasco
Euskal Abertzaltasunaren Museoa

MUSEO del PESCADOR
TORRE DE ERICILLA

Museo
Simon Bolibar

Museo de la Historia de la Medicina y la Farmacia
de la Universidad de Navarra

MUSEO DE LAS ENCARTACIONES
MUSEO VASCO

ENKARTERRIETAKO MUSEOA
MUSEO DE LAS ENCARTACIONES

Museo de Bellas Artes de Bilbao
Bilboko Arte Eder Museoa

ARTELAN BERREGINEN MUSEOA
MUSEO DE REPRODUCCIONES ARTISTICAS

Guggenheim BILBAO

BIZKAIKO MUSEOAK
DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKA AZOKA

INTXAURRE

HERRIKO TABERNA

**EUSKAL PRESOK
ETA IHESLARIAK**

ETXERA

DURANGO